


PROGRAMA  
EUSKARA

APIRILA MAIATZA EKAINA 2021



Bilbao

gizartea eta kultura  
garaikidea

AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

# Elena Aitzkoa

## *Lendia Song*

ELENA AITZKOA MATERIAREN  
KONFIGURAZIO POETIKOAN  
JARTZEN DITU FOKUA ETA  
SORMEN-ENERGIA, ETA  
EDERTASUNA IZAKIEN ARTEKO  
LOTURA-ELEMENTU GISA  
HARTZEN DU.



Elena Aitzkoa artistak *Lendia song* lana aurkeztuko du, sorkuntza garaikideari laguntzeko Babestu programaren barruan, aintzira baten barne-miaketatik sortutako proiektua. Izaera beti performatikoarekin, sorkuntza honen abenturak lankidetzan- eta bakardade-lekuak zeharkatzen ditu. Ahots- eta paisaia-grabazioen bidez igarotzen ditu espazioak, gorputz-eskultura bihurtu arte. Abestiarekin elkartzea.

Haren sorkuntza-lanak ekosistema heterogeneo bat dira, eta ingurune gutxi-asko hurbileko elementu fisikoak eta emozionalak eta bizi-esperientziak dituzte oinarrian. Materiaren konfigurazio poetikoan jartzen du fokua eta sormen-energia, eta edertasuna hartzen du izakien arteko lotura-elementu gisa.

## Lendia Song

**Sakonera. Ibilbidea. Hutsunea.**  
**Mezua. Jatorria. Besoak.**  
**Iluntasuna. Pitzadura. Betazalak**

**Eskultura**  
**aintzira bat**

**Kantua**  
**haitzulo bat**

**Irudia**  
**Mundu baten affairea**

////////////////////////////////////

Erakusketa:  
**Apirilak 22 > Uztailak 4**

16:00 - 20:00h  
Bat espazioa. Lantegia  
Sarrera dohainik, leku guztiak  
bete arte

////////////////////////////////////

 @aitzkoa



**ELENA AITZKOA** (Apodaka, 1984): Besteak beste, eskulturan, marrazketan, poesian eta performancean eta filmak egiten aritzen da.

Azken proiektuen artean, hauek nabarmentzen dira: Zarza Corazón (2019), Valladolideko Museo Patio Herreriano; *Paraíso Terrenal* (2019) poemen eta txistuen biniloa; *Nuestro amor nació en la Edad Media* (2018) filma, eta *Headscarfs close to the Ground* performanceen zikloa, Oslo Pilot-en esparruan egina (2016). Kolektiboki eta performancearen esparruan, nazioartean erakutsi du bere lana, herrialde hauetan: Ingalaterra, Italia, Japonia, Txina, AEBak, Portugal, Norvegia eta Suedian.

---

Elena Aitzkoa-k *Lendia Song* proiektua garatu du Babesturen esparruan.  
Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilboaren sorkuntza garaikideari laguntzeko aparteko deialdian.